

2004
Koaderno
sindikalak
Ekonomikoa

2004ko egoera
ekonomikoaren
azterketa
1. seihilekoa



Formazioa

2004ko egoera
ekonomikoaren azterketa
1. seihilekoa

Fiskalitatea eta enplegua

EUSKO JAURLARITZA
JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

lagundu du prestakuntza sindikalerako
txosten hau finantziatzen.

Redacción:

**Rafa Izquierdo
Oihan Ostolaza**

2004

Aurkibidea

Sarrera5

1.- Fiskalitatearen azterketa 2004. urtean6

2.- Enplegu galera 2004. urteko lehenengo erdian8

**3.- 2004. urteko urtarrila eta abuztua bitartean
buruturiko kontratazioaren azterketa**10

4.- Eranskin estatistikoak:12

I.- Hego Euskal Herriko lan merkatua12

II.- INEMen erregistratutako kontratuak13



Sarrera

Aurkezten dizuegun txostenak zera egiaztatzen du, politika fiskalean ere –gobernu ekintzaren zatirik nagusiena, aurrekontu-politikarekin batera- administrazio eta enpresarien irizpideek bat egiten dutela.

Hainbat gobernuak bultzatutako zerga-politikak helburu nagusi batzuk ditu: kapitalaren zirkulazio librea bermatzea, kapital faktorea hobetsi lan faktorearen kaltetan, eta lanetik etorritako errentak biztea eta eskuratzea sustatzea, produktio-bideen jabetzaren onurarako.

Zerga esparruan eskuduntza osorik ez izateak, 2. mailako posizioa sendotzen du Espainiako politika fiskal eta aurrekontu politikekiko. Hala ere, kudeaketarako aukerarik dagoen kasuetan, politika fiskalaren irizpideak berdinak direla azpimarratu behar da:

- Zeharkako zergapena bultzatzea zuzenarenaren kalterako; horrela, gaitasun ekonomiko txikiagoa duten pertsonen errenta erabilgarriak okerrera egiten du.
- Kapitalaren errentak hobestea, zergak murriztu eta iruzur fiskal eta zerga-iherako tarteari bidea ematea.
- Zerga-tipo finkoak aplikatzea ondaregehitze eta inbertsio-fondo kolektibotatik etorritako etekinetarako.
- Kapitalaren etekinei murrizketak edo jarduera ekonomikoetatik etorritako errentak sendotzea.

Honen ondoren, jatorrizko atxikipen eta PFEZen aitortzen gainera kontrolagatik, soldatapeko lanak, aitortutako errenten % 80 osatzen duela esan dezakegu. Burutu beharko litzatekeen zerga-politika, gaur egun bultzatzen ari den kontrako da, hain zuzen.

Bestetik, enplegu datuek, urteko lehenengo seihilekoan Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroan 2600 enplegu galdu direla egiaztatzen dute. Oraingoan langabeziak emakumezko langileei bereziki eragin die. 104.200 langabetu daude orotara. Ikerketa honek hartutako aldiaren egindako kontratuetatik %7,7 baino ez da mugagabea; aurreko urtean baino hiru hamarren gutxiago eta 2002an baino zortzi gutxiago.

Azken finean, sortzen den enplegua prekariora dela egiaztatzen du ikerketak eta kontratazioa, enpresa-etekina igotzeko iturri gisa eta lan harremanen gaineko kontrol neurri gisa erabiltzen dela.

Enplegu galtzea eta sinatzen diren kontratuak kontuan izanda, enpresa-etekin eta kostu laboralen arteko harremanean lehenengoak aterako dira irabazle.

Txostenean jasotako datuek eta Gizarte Segurantzak eta INEMen adierazleek, honako hau erakusten dute:

- Europarekiko babes sozialean bat egiteko eta batez bestekotik dugun 7,5 puntuko aldea murrizteko aukera dago. Beraz, hurrengo aurrekontuetan neurriak hartu beharko dira.
- Produktibitateak, neurri handi batean enpresa-etekin bihurtzen jarraitzen du eta tarte nahikoa dago enpleguaren kalitatea hobetzeko eta lan denboraren murrizketarako politikei heltzeko, langabezi tasak murriztu daitezten.
- Jendarte justu eta solidarioagoa erakitzeke ekintza sindikala planteatzeko baldintzak daude. Euskal Herrian, Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua eraiki daiteke eta eraiki behar da.

1.- Fiskalitatearen azterketa 2004. urtean

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak egindako aurrikuspenen arabera, itundutako zergen bidez 12.228,2 milioi euro bilduko dira Hego Euskal Herrian 2004. urtean.

4 herrialdeetan bildutakoaren %53 zeharkako zergen bidez lortuko da, zerga zuzenen bidez %45,9 jasoko da eta gainerantzeko %1,2 tasa eta beste sarreretatik etorriko da.

2004. urterako aurrikusitako itundutako zergen sarrera fiskalak:

	Milaka euro	%
Zerga Zuzenak	5.607.179	%45,9
PFEZ	3.970.516	%32,5
Soziet. Gaineko Zerga	1.392.782	%11,4
Ez Egoileen PFEZ	37.017	%0,3
Ondarearen Gaineko Zerga	136.225	%1,1
Oinordetzen Gaineko Zerga	70.639	%0,6
Zeharkako Zergak	6.478.234	%53,0
Balio Erantsiaren Gaineko Zerga	4.280.548	%35,0
Zerga Bereziak	1.671.692	%13,7
Aseguru Primak	78.784	%0,6
Ondasun eskualdaketa eta ...	446.762	%3,7
Gainerantzeko zeharkakoak	448	%0,0
Tasak eta bestelako sarrerak	142.761	%1,2
ITUNDUTAKO ZERGEN SARRERAK GUZTIRA	12.228.174	%100

Iturria: LAB-ek eginia Gasteiz eta Nafarroako Gobernuaren Aurrekontuak kontutan hartuz

Azpimarratu beharra dago zeharkako zergak fiskalki erregresiboak direla, zergapetzerakoan ez baitute kontutan har-tzen zergadunaren ahalmen ekonomikoa, eta beraz, errentaren birbanaketa ez da lortzen mota honetako zergen bidez. Hego Euskal Herrian sarreren erdia baino gehiago zeharkako zergen bidez lortzen denez, esan daiteke zerga sistema erregresiboa dagoela.

Azken 10 urtetako bilakaera aztertuz gero, Hego Euskal Herrian zeharkako zergak itundutako zergen barne zuten pisua ia 10 puntu igo da eta era berean

zerga zuzenek partehartze portzentaia galdu dute.

Bestalde, zerga zuzenen barne, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga da garrantzitsuena eta benetan esanguratsua da jasan duen progresibitate galera; sortu zenean (1978) 25 errenta tramu eta errenta altuenentzat %65,5-eko zerga tasa bazuen ere, erreforma ugari jasan ditu eta gaur egun, Hego Euskal Herrian, 7 errenta tramu besterik ez ditu eta zerga tasa altuena %48-koa da Araba, Bizkaia eta Gipuz-koan eta %44-koa Nafarroan. Erreforma hauen azken helburua

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga gutxinaka-gutxinaka linealiza-tzea da, sarrera maila guztientzat zerga tasa berdina ezarriz.

Baina are eta larriagoa dena, kapital errentek eta iharduera enpresarial eta profesioaletatik datozen errentek jaso-tzen duten mesedeko tratua ondoz, soldatapeko lanaren gaineko zerga bihurtu da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, eta mota honetako zen 2000. urtean aitorturiko errenten %80.

Era berean zerga honek errentaren birbanaketan bete behar lukeen funtzioa ezabatzen duen beste faktore bat iruzur fiskala da; kontrolatzeko zailagoak direnez, errenta altuak dituztenak eta batez ere kapitaletik eta iharduera enpresarial eta profesioaletatik datozen errentek egiten dute iruzur; soldatapeko lana egiten dutenen kasuan aldiz, nominak kontrolatzeko errazagoak direnez, praktika hau ez dago hain zabaldua.

Iruzur fiskala zenbatekoa den adierazten duen datu esanguratsu bat honakoa da: Menpeko lana burutzen duten pertsonen aitortzen duten batz besteko errenta, iharduera enpresarial eta profesionalak egiten dituztenek batz beste aitortzen dutena baino %33,5 altuagoa da.

Hala ere, sektore publikoak gauzaturiko presio fiskala modu egokiagoan neurtzeko, Gizarte Segurantzari ordainduriko kotizazioak ere kontutan hartu behar dira; konkretuki, 2001. urtean Hego Euskal Herrian Gizarte Segurantzari ordainduriko kuotek Barne Produktu Gordinaren %12,4 suposatu zuten, eta itundutako zergek, aldiz, %19,2; beraz, presio fiskala, guztira, Barne Produktu Gordinaren %31,6-koa izan zen.

15-en Europar Batasunean, aldiz, presio fiskala %41-ekoa izan zen batz beste 2001. urtean, hau da, 9,4 puntu altuagoa.

Garbi dago presio fiskalak harreman zuzena duela "Ongizate Estatuaren" garapenarekin, eta beraz, babes sozialaren gastu mailarekin, eta normalean, zenbat eta handiagoa izan herrialde baten presio fiskala, orduan eta altuagoa izaten da babes sozialera zuzenduriko Barne Produktu Gordinaren Portzentaia.

Presio fiskalari dagokionez Hego Euskal Herria 15-en Europar Batasunetik 9,4 puntu atzerago dagoenez, babes sozialaren alorrean ere atzerapena nabaria da: 7,5 puntutakoa kasu honetan.

Laburbilduz, baieztatu dezakegu gure herrian nahiko margen badagoela presio fiskala pixkanaka igotzeko, iruzur fiskala ezabatuz, galdutako progresibitate fiskala berreskuratuz eta kapital errentek eta iharduera enpresarioletatik datozen errentek duten mesedeko tratua amaituz, modu honetan gastu sozialera zuzenduriko partidak handituz eta Europaren pare jarritz politikak sozialei dagokienez.

2.- Enplegu galera 2004. urteko lehenengo erdian

Euskal ekonomiak hazkunde erritmoa izan duen arren (Nafarroako %3,5 eta EAE-ko %2,8aren artean mugitu da) enpleguak 2004. urteko lehenengo erdian izan duen bilakaera nahiko negatiboa izan da eta 2.600 lanpostu inguru galdu dira Hego Euskal Herria osotasunean hartuz. Hori da behintzat EPA inkestatik ateratzen den ondorioa. Hala eta guztiz, kontutan hartu behar da enpleguaren gutxikuntza hau Gipuzkoa eta Bizkaian kokatu dela, eta Nafarroa eta Araban, aldiz, klima ekonomikoak mesede egin dio enpleguari.

Baina kasu honetan, enplegu galerak emakumezkoengan izan du eragina, azken aldian ohikoa izan denaren aurka. Urteko lehenengo sei hilabeteetan 5.300 emakume inguruk galdu dute lanpostua, epe berdinean gizonezko landunen kopurua 2.700 pertsonatan hazi den bitartean.

Aurrerapen eta atzeratze hauen ondorioz gaur egun lanpostua duten emakumeek biztanlego landunaren %40,5 soilik ordezkatzten dute.

Hala ere, gazteria izan da beste behin lan merkatuaren bilakaera txarrak gehien kaltetu duen taldea. Lehenengo seihileko honetan 16 eta 25 urte arteko gazteek iazko urte amaieran zituzten lanpostuen %7,3 galdu dira, hau da, 6.500 lanpostu. Hori bai, hauetako gehienak prekarioak ziren, gazteriaren aldikotasun tasa izugarria %69,3koa baita. Hau da, enplegua duten 10 gaztetatik ia 7k aldi baterako kontratua dute.

Garbi dago gazteak direla lan baldintza gogorrenak eta ezegonkorrenak jasaten dituztenak, baina aldikotasunak ez du gazteria soilik ukitzen. Soldatapeko emakumeen artean ere aldikotasun tasa oso altua da. Konkretuki, aldi baterako kontratua duten emakumeak %32,6 dira; hau da, ia hiru emakumetatik batengan du eragina. Eta gizonezkoen aldikotasun tasa %21,5ekoa da, hau ere oso altua Europako datuekin alderatuz gero.

Izan ere, Eurostat-en (EB-ko Estatistika Bulegoa) arabera EB-25eko batz besteko aldikotasun tasa %13koa da, eta Hego Euskal Herrikoa %26,2koa, bikoitza baino handiagoa.

Langabeziaren bilakaerari dagokionez, 4.600 pertsonatan gutxitu bada ere, biztanleria aktiboa murriztearen ondorioz gertatu da hori; era aktibo batean lanpostu baten bila dabilzan pertsonak gutxiago direlako, eta ez enplegua sortu delako, lehen aipatu dugun moduan lehenengo seihileko honetan pertsona enplegatu kopurua txikitu egin baita.

Langabezian denbora luzez dauden eta lana aurkitzen ez dutenen artean ohizkoagoa da enplegua era aktibo batez bilatzez uztea, itzaropena galtzen dutenean "etsiturik" sentitzen baitira. Beraz, lan merkatutik kanporatuak izaten dira literalki.

Gaur egun, langabezian dauden pertsonen %43ak urte bat baino gehiago daramate enplegu bila. Hego Euskal Herrian epe luzeko 44.800 langabetu (ELL) inguru daudela esan nahi du horrek. 2003. urte amaieran egoera honetan zeuden pertsonen kopurua langabetuen %41ekoa zen.

Baina kasu honetan ere desberdintasunak daude sexua kontutan hartuz gero. Epe luzeko langabeziak langabezian dauden emakumeen %48an eta gizonezkoen %37,3an du eragina. Gainera, gogoratu beharra dago langabezian dauden 104.200 pertsonetatik %55,5 emakumeak direla.

EPA-k emandako datuen arabera, urteko bigarren hiruhilekoan langabezia tasa Hego Euskal Herrian %8,3koa zen; bitartean Euro Zonaldean batz bestekoa %9an mantentzen da, 25 partaideen Europar Batasunean gertatzen den moduan.

Hemen ere desberdintasunak daude gizatalde desberdinen artean. Gizonezkoen artean langabezia tasa %6,3koa da eta emakumezkoen artean %11koa; gazteek, aldiz, %21,3ko tasa jasaten dute.

Azkenik, aipatu beharra dago lan merkatuak azken aldian izan duen atzeraldia Europa guztian kapitalak eraso berri bat egin duen une berean gertatu dela: soldata berdinen truke ordu gehiago lan egiteko exigentzia ekoizpena mantentzearen truke. Txantaia eta estorsioa fruituak ematen hasi dira enpresa handietan (Nissan, Seat, Lois, Opel, Siemens, Bosch,...) eta gerta daiteke lan jardunaldia luzatzearen ondorioz langabeziaren gu-txikuntza frenatzea neurri handi batean.

Estrategia honen adierazle nagusiak multinazional handiak dira, beraien ekoizpen plantak Ekialdeko Europara edo Txinara lekualdatzeaz mehatxatuz. Baina enpresa txiki eta ertainak ere ku-tsatu ditu ekoizpen sukar honek. Hau da lan malgutasuna gehitzeko nahiaren arrazoia, eta modu honetan uler daiteke jardunaldia murriztearen aurka euskal patronalak erakutsi duen postura inbilitaren gogortzea.

Beraz, azken urteetan jardunaldi murrizketak kasu gehienetan nahiko txikiak izan badira, etorkizun hurbilerako enpresarien aldetik erresistentzia handiagoa espero daiteke. Saihestezina den "txoke" baterako prestatu beharra dugu.

3.- 2004. urteko urtarrila eta abuztua bitartean buruturiko kontratazioaren azterketa

2004. urteko urtarrila eta abuztua bitartean (biak barne) 645.951 kontratu erregistratu ziren Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko INEM-en bulegoetan; hau da, iaz epealdi berdinean sinaturikoak baino 51.034 gehiago. Baina kontratazioan izandako hazkunde hau ia bere osotasunean aldi baterako kontratu kopurua gehitzearen ondorioz gertatu zen. Hain zuzen ere 49.017 aldi baterako gehiago sinatu ziren.

Kontratazio mugagabeari dagokionez, aztertutako epealdian guztira 49.876 mugagabe erregistratu ziren, aldi baterakoen bihurtzetik datozenak kontutan hartuz; hau da, iazko lehenengo zortzi hilabeteetan baino 2.017 kontratu mugagabe gehiago.

Hori dela eta, kontratu mugagabeek, orain arte urtean zehar erregistraturiko kontratazio osoaren %7,7 suposatzen dute, 2003. urteko epealdi berean portzentaia hau %8koa izanik eta 2002. urtean %8,5koa. Logikoki, aldi baterako kontratuak gainerantzeko %92,3 izan dira, iaz baino 3 hamarren gehiago eta duela bi urte baino 8 hamarren gehiago. Beraz, lehenago ere aurrakusten zen joera bat indartu eta larritu egin dela baieztatu daiteke.

Bestalde, sexuaren eta adinaren arabera gertatzen diren desberdintasunak aztertzea ere garrantzitsua da:

Gizonezkoen kasuan, kontratazio mugagabearen pisua %8,5koa da guztira sinaturiko kontratuekin alderatuz, eta emakumezkoen kasuan, aldiz, portzentaia hau %6,9koa da. Datu hauek garbi erakusten dute patronalak langileak hartzerakoan kontratazio mugagabea erabiltzeko duen joera eskasa are eta murriztagoa dela emakumeak kontratatzerako garaian, eta urtez urte joera hau errepikatu egiten dela egiazta dezakegu.

Baina 25 urte baino gazteagoek sinaturiko kontratu mugagabeen portzentaia emakumezkoen kolektiboarena baino txikiagoa da; gazteei eginko kontratuen %4,9 soilik izan ziren mugagabeak, 2003. urteko epealdi berean portzentaia hau %5,3koa izan bazen ere.

Mugagabeko kontratazioaren barne, mugagabe mota bakoitzak izan duen bilakaera aztertzea ere interesgarria da, mota guztiek ez baitituzte berme (kalte-ordain) berdinak ziurtatzen kaleratzearen aurrean.

Mugagabe arruntek (aldi osorakoak, aldi partzialekoak eta aldizkakoak kontutan hartuz) kontratu mugagabeen %28,08 ordezkatzeko dute, eta kontratazio osoaren %2,1. Mota honek, bidegabeko kaleratzearen kasuan, lan egindako urte bakoitzeko 45 eguneko kalte-ordaina ziurta-tzen du, baina 42 hileko topearekin.

Gainerantzeko kontratu mugagabe mota desberdinak sustatze neurriei loturik daude eta horren ondorioz hobari esanguratsuak dituzte Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko

enpresa kuotan; gainera, bidegabeko kaleratzeetan lan egindako urte bakoitzeko 33 eguneko kalte-ordaina eskaintzen dute, 24 hileko topearekin. Sustapeneko mugagabe hauetako gehienak aldi baterakoen bihurtzetik datoz, eta guztira, berriak diren *sustapeneko mugagabe* eta aldi baterakoen bihurtzetik datozenen baturak, kontratu mugagabe guztien %71,28 suposatzen dute.

Aldi baterako kontratu mota desberdinei dagokienez, azpimarratu beharra dago beste behin ere *ekoizpenagatiko* eta *obra edo zerbitzuagatiko* aldi baterako kontratuak direla erabilienak. Bi modalitate hauek kontratazio osoarengan duten pisua (aldi partzialekoak kontutan hartuz) %38,9 eta %34,3koa da hurrenez hurren.

Hirugarren kontratu mota erabiliena *bitarteko kontratua* da, sinaturiko kontratu guztien %16,1 ordezkatur. Mota hau, postua gordetzeko eskubidea duten langileak ordezkatzeko edo hautaketa prozesuetan epe batez postu bat bete-tzeko da.

Hasiera batean, *bitarteko kontratuaren* helburua oso zehatza da eta bere erabilera oso mugatua dago. Baina modalitate hau batez ere zerbitzu sektorean emakumezkoak kontratatzeko erabil-tzea ez da kasualitatea. Hain zuzen ere bitarteko kontratuen %75 emakumezkoak kontratatzeko erabiltzen da. Horrela uler daiteke emakumezkoekin buruturiko kontratuen ia %25 *bitartekoa* izatea, gizonezkoen kasuan mota honetakoak %8 diren bitartean. 25 urte baino gazteagoek sinatzen dituzten kontratuen %12,7 ere bitartekoak dira.

Gainera, *bitarteko kontratuak*, emakumeek bizi duten prekaritate eta lan errotazio maila izugarriaren arduradunak dira neurri handi batean, gutxien irauten dutenak baitira diferen-tziaz, ia hilabeteko iraupena gainditu gabe.

Azkenik, kapitulu hau ezin dugu amaitu ABLE bidez egiten diren *langileak lagatzeko kontratuak* aipatu gabe. Lan eta Gizarte Gaietarako Ministeritzaren datuen arabera, urteko lehenengo 3 hilabeteetan 44.978 kontratu sinatu ziren Hego Euskal Herrian ABLE bidez, iaz epealdi berdinean 40.161 kontratu izanik; hau da, 4.817 kontratu gehiago, edo berdina dena, %12ko hazkundea ABLE-en bitartekaritzan.

ABLE bidez sinaturiko kontratu kopuruan ikus daitekeen goranzko joera honek garbi erakusten du kontratu hauek prekaritate eta esplotatze instrumentu moduan erabiltzen jarrai-tzen dela.

4.- Eranskin estatistikoak

I. - HEGO EUSKAL HERRIKO LAN MERKATUA.

EPA: 2004ko 2. hiruhilekoa

SEXU BIOK	2.hiruh. 04	4. hiruh. 03	Desb.	SOLDATAPEKOAK	
LANDUNAK	1.150.500	1.153.100	-2,600	Guztira	949.600
LANGABETUAK	104.200	108.800	-4,600	Mugagabeak	700.600
AKTIBOAK	1.254.700	1.261.900	-7,200	Aldi baterakoak	249.000
LANGABEZITASA	8,3	8,6	-0,3	LANGABEZIAN	
ENPLEGU TASA	51,2	51,3	-0,1	Urtebete +	44.800
IHARDUERA TASA	55,8	56,2	-0,3	2 urte +	28.200
ALDIKOTASUN TASA	26,2	26,2	0,0		
16 urtetik gorako biztanleria	2.246.900	2.246.600	300		

EMAKUMEAK	2.hiruh. 04	4. hiruh. 03	Desb.	SOLDATAPEKOAK	
LANDUNAK	466.000	471.300	-5.300	Guztira	405.500
LANGABETUAK	57.800	56.700	1.100	Mugagabeak	273.300
AKTIBOAK	523.800	528.000	-4.200	Aldi baterakoak	132.200
LANGABEZITASA	11,0	10,7	0,3	LANGABEZIAN	
ENPLEGU TASA	40,4	40,8	-0,5	Urtebete +	27.700
IHARDUERA TASA	45,4	45,7	-0,4	2 urte +	17.400
ALDIKOTASUN TASA	32,6	32,0	0,6		
16 urtetik gorako emakumeak	1.154.800	1.154.200	600		

GIZONAK	2.hiruh. 04	4. hiruh. 03	Desb.	SOLDATAPEKOAK	
LANDUNAK	684.500	681.800	2.700	Guztira	544.200
LANGABETUAK	46.400	52.100	-5.700	Mugagabeak	427.200
AKTIBOAK	730.900	733.900	-3.000	Aldi baterakoak	117.000
LANGABEZITASA	6,3	7,1	-0,8	LANGABEZIAN	
ENPLEGU TASA	62,7	62,4	0,3	Urtebete +	17.300
IHARDUERA TASA	66,9	67,2	-0,3	2 urte +	10.900
ALDIKOTASUN TASA	21,5	21,9	-0,4		
16 urtetik gorako gizonak	1.092.100	1.092.400	-300		

GAZTEAK (<25 urte)	2.hiruh. 04	4. hiruh. 03	Desb.	SOLDATAPEKOAK	
LANDUNAK	82.900	89.400	-6.500	Guztira	76.100
LANGABETUAK	22.500	25.200	-2.700	Mugagabeak	23.400
AKTIBOAK	105.400	114.600	-9.200	Aldi baterakoak	52.700
LANGABEZITASA	21,3	22,0	-0,6	LANGABEZIAN	
ENPLEGU TASA	32,2	33,7	-1,6	Urtebete +	7.700
IHARDUERA TASA	40,9	43,2	-2,3	2 urte +	4.100
ALDIKOTASUN TASA	69,3	68,3	0,9		
16 urtetik 25era	257.800	265.200	-7.400		

II.- INEMen ERREGISTRATUTAKO KONTRATUAK.
HEGO EUSKAL HERRIA, 2004ko urtarrilatik abuztura bitartean

KONTRATU MOTA	Guztira	Lehen sekt.	Indust.	Eraikun.	Zerbitzu.	Gizonak	Emakum.	Gazteak
MUGAGABE ARRUNTA (1)	13.788	779	2.758	1.143	9.108	9.503	4.285	2.217
MINUSBALIATUAK	288	1	45	35	207	190	98	25
SUSTAPENEOAK	11.133	133	1.779	701	8.520	3.616	7.517	2.033
MUGAGABE BIHURTZEAK	24.667	192	6.527	2.369	15.579	14.600	10.067	5.444
MUGAGABE GUZTIAK	49.876	1.105	11.109	4.248	33.414	27.909	21.967	9.719
OBRA EDO ZERBITZUA	221.553	5.170	24.594	50.626	141.163	139.216	82.337	67.412
EKOIZPENETAKOAK	251.285	1.872	33.948	8.615	206.850	122.962	128.323	89.828
BITARTEKOAK	104.097	475	6.229	816	96.577	26.193	77.904	25.509
MINUSBALIATUAK	710	2	198	48	462	463	247	106
LANEAN TXERTATZEKOAK	2.012	69	2	33	1.908	1.008	1.004	405
ORDEZKAPENA (64 URTE)	101	0	31	11	59	66	35	9
ERRELEBU-KONTRATUAK	2.539	7	1.565	137	830	2.017	522	590
ORDEZKAPEN PARTZIALA	2.727	7	1.700	149	871	2.435	292	0
PRAKTIKAK	5.551	10	1.648	636	3.257	3.351	2.200	3.842
PRESTAKUNTZAKOAK	2.631	10	425	590	1.606	1.786	845	2.192
GAINONTZEKOAK	2.869	229	228	35	2.377	1.544	1.325	710
ALDI BATERAKO GUZTIAK	596.075	7.851	70.568	61.696	455.960	301.041	295.034	190.603
KONTRATU GUZTIAK	645.951	8.956	81.677	65.944	489.374	328.950	317.001	200.322

Iturria: INEM

(1) Sustapen neurriei lotuta ez dauden aldi osorakoak, aldi partzialekoak eta aldizkako kontratu finkoak barne.

(*) Aldi baterako mota bakoitzak, berari dagozkion aldi partzialeko kontratuak kontutan hartzen ditu.

Portzentaje bertikalak

KONTRATU MOTA	Guztira	Lehen sekt.	Indust.	Eraikun.	Zerbitzu.	Gizonak	Emakum.	Gazteak
MUGAGABE ARRUNTA (1)	2,1%	8,7%	3,4%	1,7%	1,9%	2,9%	1,4%	1,1%
MINUSBALIATUAK	0,0%	0,0%	0,1%	0,1%	0,0%	0,1%	0,0%	0,0%
SUSTAPENEGOAK	1,7%	1,5%	2,2%	1,1%	1,7%	1,1%	2,4%	1,0%
MUGAGABE BIHURTZEAK	3,8%	2,1%	8,0%	3,6%	3,2%	4,4%	3,2%	2,7%
MUGAGABE GUZTIAK	7,7%	12,3%	13,6%	6,4%	6,8%	8,5%	6,9%	4,9%
OBRA EDO ZERBITZUA	34,3%	57,7%	30,1%	76,8%	28,8%	42,3%	26,0%	33,7%
EKOIZPENETAKOAK	38,9%	20,9%	41,6%	13,1%	42,3%	37,4%	40,5%	44,8%
BITARTEKOAK	16,1%	5,3%	7,6%	1,2%	19,7%	8,0%	24,6%	12,7%
MINUSBALIATUAK	0,1%	0,0%	0,2%	0,1%	0,1%	0,1%	0,1%	0,1%
LANEAN TXERTATZEKOAK	0,3%	0,8%	0,0%	0,1%	0,4%	0,3%	0,3%	0,2%
ORDEZKAPENA (64 URTE)	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%
ERRELEBU-KONTRATUAK	0,4%	0,1%	1,9%	0,2%	0,2%	0,6%	0,2%	0,3%
ORDEZKAPEN PARTZIALA	0,4%	0,1%	2,1%	0,2%	0,2%	0,7%	0,1%	0,0%
PRAKTIKAK	0,9%	0,1%	2,0%	1,0%	0,7%	1,0%	0,7%	1,9%
PRESTAKUNTZAKOAK	0,4%	0,1%	0,5%	0,9%	0,3%	0,5%	0,3%	1,1%
GAINONTZEKOAK	0,4%	2,6%	0,3%	0,1%	0,5%	0,5%	0,4%	0,4%
ALDI BATERAKO GUZTIAK	92,3%	87,7%	86,4%	93,6%	93,2%	91,5%	93,1%	95,1%
KONTRATU GUZTIAK	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%	100,0%

Iturria: INEM

(1) Sustapen neurriei lotuta ez dauden aldi osorakoak, aldi partzialekoak eta aldizkako kontratu finakoak barne.

(*) Aldi baterako mota bakoitzak, berari dagozkion aldi partzialeko kontratuak kontutan hartzen ditu.

Portzentaje horizontalak

KONTRATU MOTA	Guztira	Lehen sekt.	Indust.	Eraikun.	Zerbitzu.	Gizonak	Emakum.	Gazteak
MUGAGABE ARRUNTA (1)	100%	5,6%	20,0%	8,3%	66,1%	68,9%	31,1%	16,1%
MINUSBALLATUAK	100%	0,3%	15,6%	12,2%	71,9%	66,0%	34,0%	8,7%
SUSTAPENEKOAK	100%	1,2%	16,0%	6,3%	76,5%	32,5%	67,5%	18,3%
MUGAGABE BIHURTZEAK	100%	0,8%	26,5%	9,6%	63,2%	59,2%	40,8%	22,1%
MUGAGABE GUZTIAK	100%	2,2%	22,3%	8,5%	67,0%	56,0%	44,0%	19,5%
OBRA EDO ZERBITZUA	100%	2,3%	11,1%	22,9%	63,7%	62,8%	37,2%	30,4%
EKOIZPENETAKOAK	100%	0,7%	13,5%	3,4%	82,3%	48,9%	51,1%	35,7%
BITARTEKOAK	100%	0,5%	6,0%	0,8%	92,8%	25,2%	74,8%	24,5%
MINUSBALLATUAK	100%	0,3%	27,9%	6,8%	65,1%	65,2%	34,8%	14,9%
LANEAN TXERTATZEKOAK	100%	3,4%	0,1%	1,6%	94,8%	50,1%	49,9%	20,1%
ORDEZKAPENA (64 URTE)	100%	0,0%	30,7%	10,9%	58,4%	65,3%	34,7%	8,9%
ERRELEBU-KONTRATUAK	100%	0,3%	61,6%	5,4%	32,7%	79,4%	20,6%	23,2%
ORDEZKAPEN PARTZIALA	100%	0,3%	62,3%	5,5%	31,9%	89,3%	10,7%	0,0%
PRAKTIKAK	100%	0,2%	29,7%	11,5%	58,7%	60,4%	39,6%	69,2%
PRESTAKUNTZAKOAK	100%	0,4%	16,2%	22,4%	61,0%	67,9%	32,1%	83,3%
GAINONTZEKOAK	100%	8,0%	7,9%	1,2%	82,9%	53,8%	46,2%	24,7%
ALDI BATERAKO GUZTIAK	100%	1,3%	11,8%	10,4%	76,5%	50,5%	49,5%	32,0%
KONTRATU GUZTIAK	100%	1,4%	12,6%	10,2%	75,8%	50,9%	49,1%	31,0%

Iturria: INEM

(1) Sustapen neurriei lotuta ez dauden aldi osorakoak, aldi partzialekoak eta aldizkako kontratu finakoak barne.

(2) (*) Aldi baterako mota bakoitzak, berari dagozkion aldi partzialeko kontratuak kontutan hartzen ditu.

